

Hauspoa



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Duela zombait egun, Bruno Retailleau Frantziako Barne ministro berria lotu da “migrazio nahasmendu” deitu duen arazo premiatsuari. Estatu-ko prefetei manu argiak helarazi dizkie: tolerantziarik ez etorkinekin eta haiei begira lazo edo konplize agertzen diren egitura eta presunekin. Ordrea atxiki dezatela Frantzian, diziplina larderiatsua, “barne seguritate indarren” laguntzarekin –hau da, Polizia-instituzioa–. Garaia da agintariak beren gain har dezaten migranteen bereizketa, Xalbadorrek, duela 50 urte, oroitarazi zigun arren “*gizona bada erreprotxurik gabeko,/ bidea libro behar lukela nahi lekurat joaiteko*” (*Mendian galdu direneri*). Politikari handien diskurtso bortitz eta jendetasun gabe-koak bat doaz eskuin-muturretik ufatzen duen haizearekin, eta mehatxu eta beldur giro orokorra areagotzen dute.

Beharrik familiaren babesa hor daukagula, pribilegiatuok, gerizatzeko, nahiz eta gure arteko intimitatearen goxotasuna ere noiznahi hauts lezakeen hitz laidogarriren batek. Gogoan dut, bereziki, duela bi aste, 100 urtera heldua zen amatxiren ehorzketan, ahaideak kontsolamendu beharretan ginela eta, apezak erran digula guretzat “eta askorentzat” izanen dela salbamena, eta ez,

haurrean entzuten nuen bezala, guretzat “eta guzientzat”. Aldaketa liturgiko hori justifikatzen omen dute Bibliaren itzultzaile zorrotzek, eta ulertu behar omen da “asko” eta “guziak” ez dela hain ezberdin, baina halere, nola ez lotu kanbiamen hori inguruan nagusi den solas garbitzailearekin? Xalbadorrek, berriz, idatzi zuen “*gu guzientzat hil izan zela Jesus kurutze batean*”.

Beharrik hor dugula, gurean, kultura herrikoia, kolektiboki gogoetatzeko gaintitzen gaituenaz. Nahiz eta gure ohiko plaza ikusgarrietan ere nagusitzen ari den funts handirik gabeko leuntasun orokor bat, Peio Berterretzek bere Master lanean berriki azaldu duenez.

Beharrik hor dugula, bestalde eta oroz gaisetik, artea, erlijio baten antzera iluntasun orokorraren bidea argitzeko gai dena: urriaren 18an Artedramak emandako *Miñan* antzerkia ez ote da izan otoitz eragile bezain ekintzailearen irudikoa? Badira arte-obrari neurri transzendentetik eman behar ez zaiola erraten dutenak. Pierre Bourdieu-k idatzi du ez dela gehiago “irakurketa liturgikorik” egin behar, eta Roland Barthes-ek zioen literatura dela “irakasten dena, eta kitto”. Haien ildotik, anitzek esplikatu dute literaturaren didaktikari utzi behar zaiola

literatura zer den azaltzeko ardura, literatura ez duelako deus sakraturekin ikustekorik: objektu bat baizik ez liteke, zientifikoki diseagarria. Egia erran, ez nuke nahi nik modu profanoan irakasten dudana, hainbat teoria serio eta konplexutan oinarritua, izan dadin literaturaren buru-buztana. Hain zuzen ere, kurtsoak hasi eta bukatu ohi ditut ikasleei erranez kontatuko dudana eta kontatu dudana bigarren planoan ezarri behar dutela, beren buru-muinaren antolaketan, eta lehenetsuna eskaini behar dietela, baitetzpada, literatura onak beren barne sakonenean eraginen dien inarrosaldiei, karkaila askatzaileei edo korapiloei.

23 urterekin Parisko bazterretan nintzelarik irakasle, XIX. mendeko erromantizismo frantsesaren ezaugarriak zoin ziren erakusten, nerabe batek bota zidan: “Badakizu, anderea, Victor Hugo eta erromantizismoa zure garaikoak dira. Gu ez gara gehiago holakoak”.

Menturaz XIX. mendeko ikuspegia daukat, literatura eta, oro har, artearen baitan ikusten dudalako gure salbamen bidea. Moderno izatekotan eta literatura objektutzat hartzekotan, hauspo gisakotzat har nezake, ez askoren baina ororen baitako pindarrak gar bihur litzakeenak. ●